

Husserlen fenomenologiaren oinarritzko ideia bat: intentzionalitatea*

JEAN-PAUL SARTRE

«Gizonezko hark begiekin jaten zuen emakumezko hura.» Esaldi honek eta beste zeinu askok nahikoa markatzen dute errealismoari eta idealismoari batera dagozkien ilusioa, zeinaren arabera ezagutzea jatea baita. Ehun urte akademizismoan pasa eta gero, frantses filosofia oraindik horretan da. Guk denok Brunschvicg, Lalande eta Meyerson irakurri ditugu, guk denok Izpiritu-Armiarmak gauzak bere sarera erakarri, lerre zuri batez estali eta poliki irentsi eta bere substantzia propiora erreduzitzen zituela uste izan dugu. Zer da mahaia, harkaitza, etxea? «Kontzientzia edukien» bildumaren bat, eduki horien orden bat. O janari filosofia! Hala ere, ez zen begien-bistakoagorik ezer: mahaia ez ote da nire pertzepzioaren eduki erreala, eta nire pertzepzioa ez ote nire kontzientziaren oraingo egoera? Elikadura, asimilazioa. Lalandek zioenez, asimilazioa, ideiek gauzena, ideiek beren artekoa eta izpirituek beren artekoa. Munduaren ertz sendoak pixkanaka jaten zituzten diastasi arretatsu hauek: asimilazioa, bateratzea, identifikazioa. Alferrik, gure arteko sinpleenek eta landugabeenek zerbait mamitsua bilatzen zuten, zerbait, finean, izpiritua ez zena; edonon ez zuten hauxe besterik aurkitzen, laino heze eta ongi berezia: beren buruak.

Enpiriokritizismoaren nahiz neokantismoaren liseriketa-filosofiaren aurka, «psikologismo» guztien aurka, Husserlek nekatu gabe dio gauzak ezin di-

* Jean-Paul Sartre (1905-1980) jaio zela ehun urte eta hil zela hogeita bost urte betetzen dira aurten. Haren omenez itzuli dut Husserlen fenomenologiari buruzko testu labur hau, 1939an lehen aldiz *La Nouvelle Revue Française* aldizkarian argitaratua, Sartreren idazkera, paragrafoen osotasuna eta egitura errespetatuz. Eskerrik asko Kepa Korta irakasle eta lankideari. Itzulpenari egingako oharrak balio handikoak izan dira. Itzulpena Anton Artamendi irakasle eta adiskideari eskaintzen diot, duela 35 urte Donostiako basamortu filosofikoan, besteak beste, Husserlek eta Sartrek idatzitakoa gogoeta iturri bihurtu zuelako.

rela kontzientzian urtu. Ikusten duzue zuhaitz hau, ea ba. Baina ikusi dagoen toki horretan bertan dakusazue: errepidearen bazterrean, hauts multzoaren erdian, beropian bakarrik eta okertua, Mediterraneoko itsasertzetik hogeiki legoara. Ezingo luke zuen kontzientzian sartu, haren izaera eta honena ez baitira berdinak. Bergson eta bere *Materia eta Oroimenaren* lehen kapitulua etorriko zaizue gogora. Baina Husserl ez da batere errealista: lur pusketa zarrakatu horretan dagoen zuhaitz horrek ez du absoluturik osatzen, gurekin, gerora, komunikazioan sartuko litzatekeen absoluturik. Kontzientzia eta mundua aldi berean ematen dira: mundua, esentziaz kontzientziatik kanpo dena, esentziaz honekiko erlatiboa da. Izan ere, Husserlek kontzientzia gertara erreduziezintzat hartzen du, eta ez dago inolako irudi fisikorik hura eman dezakeenik. Beharbada, leherketaren irudi azkar eta iluna, salbu. Ezagutzea «norabait lehertzea» da, intimitate gastriko hezetik urrunduta eta haruntza joan, norberaren gaineratik, norbera ez denera, haruntza, zuhaitzaren ondora eta, haatik, hartatik kanpo, niregandik ihes egin eta atzera bultzatzen nauenera, eta ezin naiteke galdu ni harengan, hura niregan urtzen ez den modu berean: harengandik kanpo, niregandik kanpo. Ez ahal dituzue deskribapen honetan zeuen esijentziak eta zeuen aitzinsentimenduak antzematen? Bazenekiten ongi zuhaitza ez zela zeuek zaretana, ezin zenutela zeuen urdail ilunetan sartuarazi eta, ondradu izateari laga gabe, ezagutza ezin zela jabetzarekin konparatu. Bide batez, kontzientzia garbitu egin da, garbia da haize handi baten antzera, ez dago jada ezer bere baitan, ez bada berarengandik ihes egiteko mugimendua, berarengandik kanpoko irrista; inposibleria jota, kontzientzia baten «barruan» sartuko bazinate, zurrumbilo batek hartu eta kanpora jaurtikiko zintuzkete, zuhaitzaren albora, hauts-lekuaren erdira, kontzientziak ez baitu «barru»rik; ez da ezer bere baitatik kanpoko baina eta ihes absolutu horrek, substantzia ez izateko arbuio horrek osatzen dute kontzientzia gisa. Demazue orain geuregandik aterako gintuzkeen leherketa segida lotu bat, beraien ondotik «gu geu» eraztea lagako ez gintuzkeena, aitzitik hortik kanpora botako gintuzkeena, munduaren hauts lehorrera, lur gogorrera, gauzen artera; jo ezazue horrela, geure izaera beraz, alboratuak, abandonatuak garelara mundu indiferente, areriozko eta egoskor batean; orduan Husserlek esaldi famatu honetan adierazten duen aurkikuntzaren zentzu sakonaz jabetuko zarete: «Kontzientzia oro zerbaiten kontzientzia da.» Ez da besterik behar guztia konpromiso bidez, truke protoplasmikoen bidez, zelula-kimika epel baten bidez egiten denaren aldeko inmanentziaren filosofia biguntxoari bukaera emateko. Transzendentziaren filosofiak errepide zabalera botatzen gaitu, mehatxuen erdira, itsuarazteko erako argiaren menpe. Izatea, Heideggerrek dio, munduan-izatea da. Uler ezazue «-anizatea» mugimenduaren zentzuan. Izatea munduan lehertzea da, munduaren eta kontzientziaren ezerezetik abiatu eta derrepente munduan-kontzientzia-lehertzea. Kontzientzia berriro bere buruari lotzen saiatzen bada, berotasunean, leihoak itxita, azkenik bere buruarekin bat egiten saiatzen bada, orduan ezereztu egiten da. Kontzientziak beste zerbait denaren kontzientzia moduan esistitzeko duen premiari Husserlek «intenzionalitate» esaten dio.

Hobeto ulertua izan nadin hitz egin dut lehenik ezagutzaz: gu hezi gaituen filosofia frantsesak ez du gaur epistemologia besterik ezagutzen. Husserl eta fenomenologoentzat, ordea, guk hartzen dugun gauzen kontzientzia ez da inola ere ezagutzara mugatzen. Ezagutza edo «errepresentazio» soila zuhaitz horren nire kontzientziaren forma posibleetako bat besterik ez da; nik hura maitatu, hari beldur izan, hura gorrotatu dezaket baita ere, eta «intentzionalitate» deritzon kontzientziaren haraindi jotze hori, kontzientzia beraren bidez, beldurrean, gorrotoan eta maitasunean kausitzen da. Norbait gorrotatzea harengana oraino lehertzeko modu bat da, kanpoko egiten zaiGUN norbaiten aurrean kolpetik geure burua aurkitzea, nagusiki haren «gorrotagarri» kualitate objektiboa bizi, sufritzen dugula. Horra ba, bat batean, nola erreakzio «subjektibo» famatu horiek, gorrotoa, maitasuna, beldurra, sinpatia, Izpirituaren usai txarreko gatzunetan flotatzen zutenak, hortik ateratzen diren; ez dira mundua aurkitzeko erak besterik. Gauzak guri gorrotagarri, begiko, ikaragarri, maitagarri azaltzen zaizkigu kolpetik. Maskara japoniarraren *ezaugarria* da izugarri izatea, haren izaera bera osatzen duen ezaugarri agortezina, erreduziezina, -eta ez egur puska zizelduaren aurrean ditugun geure erreakzio subjektiboen bilduma. Husserlek izua eta xarma gauzetan jarri ditu berriro. Artisten eta profeten mundua bueltatu digu: beldur emailea, areriozkoa, arriskutsua, grazia eta maitasun portuekin. Gure errefinatuek hain sakonki ezezagutu duten eta hain sinplea den egia honetaz inspiratutako pasioen tratatu berri batentzako leku garbia eskaini du: emakume bat maite badugu, maitagarria delako da. Hona Proustengandik askatuak. Aldi berean, «barne bizitzatik» askatuak; alferrik ibiliko ginateke, Amielen eran, ume batek bere sorbalda besarkatzen duen eran, geure intimitatearen laztanen, barrukotasunen bila, azkenean dena kanpoan baitago, dena, geu ere bai: kanpoan, munduan, besteen artean. Ez ditugu geure buruak aurkituko batek dakien halamoduko erretiroan: bai, errepidean bai, herrian, jendetzaren erdian, gauza gauzen artean, gizakia gizakien artean.